



SENTSIBILIZAZIO, JOLAS ETA AISIA OSASUNGARRIKO JARDUEREN FITXATEGIA

Datuen babesari buruzko informazio gehigarria

- Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Nortasuna: Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.

Posta-helbidea: Navas de Tolosa k., 29. 31002. Iruñea

Helbide elektronikoa: protecciondatos@mcp.es

Datuen babesaren ordezkaria: Chaverri & Loitegui, Abogados, Consultores

Datuen babesaren ordezkariaren helbidea: Nafarroa Behereko etorbidea, 2, solairuartea, 3. bulegoa

Helbide elektronikoa: protecciondatos@mcp.es

- Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datuak?

Sentsibilizazio, jolas eta aisia osasungarriko jarduerak sustatzea eta kudeatzea, Iruñerriko herritarrengan ohitura eta jokaera iraunkorrak bultzatzera bideratuak, eta era berean Ingurumen Informazio eta Heziketarako Zentroen sarea eta haien inguruetako naturguneak dibulgatu edo jendarteratzea.

- Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?

Zerbitzua ematen amaitu ondoren edo, egokia bada, interesdunek datuak baliogabetzeko egindako eskaeraren ondoren legezko ekintzen preskripzio denbora maximoan gordeko ditugu datuak.

- Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?

- Interesduna alderdia edo parte den kontratu bat gauzatzeko beharrezkoa da edo, hark eskatu duelako, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko.
- Misioa interes publikoan edo botere publikoak gauzatzea.
- Arduradunaren edo beste baten interes legitimoa.
- Interesdunaren berariazko baimena.

- Zein hartzaileri jakinaraziko zaizkio zure datuak?

- Ez dago aurreikusita datuak beste batzuei lagatzea, legezko xedapenei kalterik egin gabe.
- Ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

- Zein dira zure eskubideak datuak ematen dizkiguzunean?

Edozein pertsonak du bere datuen tratamenduari buruzko informazioa lortzeko eskubidea.

Interesa duten pertsonak beren datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea daukate, bai eta zuzenak ez diren datuak zuzentzeko eskatzekoa ere edo, bere kasuan, ezabatzeko eskatzekoa ere, beste arrazoi batzuen artean, datuak jaso zirenean zeuden helburuetarako jada beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek eskatu ahal izango dute beren datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, eskubideak gauzatzeko edo erreklamazioak defendatzeko baino ez ditugu gordeko.

Egoera jakin batzuetan eta haien egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik, interesdunek uko egin ahal izango diote beren datuen tratamenduari. Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak datuak tratatzeari utziko dio, premiazko eta legezko arrazoiengatik izan ezik, edo egon litezkeen erreklamazioen defentsa edo gauzatzearengatik.

Era berean, interesdunak bere eskubideen eramangarritasunerako eskubidea du.

Uste badu bere datuak ez direla zuzen tratatu, jakinarazi ahal izango digu protecciondatos@mcp.es helbide elektronikoaren bidez eta ondoren kontrol-agintaritzara jo ahal izango du: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia.

- Nola lortu ditugu datuak?

- Jatorria: interesduna bera.
- Biltzeko prozedura: inkestak edo elkarrizketak, formularioak.
- Biltzeko euskarria: magnetikoa / informatikoa, papera, telematikoa.

- Tratatzen diren datu motak hauek dira:

Identifikaziokoak	IFZ, izen-abizenak, helbidea, telefonoak, helbide elektronikoa
Ezaugarri pertsonalenak	Sexua, adina
Beste datu mota batzuk	Jardueren garapeneko argazkiak eta bideoak